


AUSENCIA

*Sueño y fatiga
la distancia hasta ti
hoy se me llena de ansiosos fantasmas
sólo retengo tu voz, lejana y queda.*

*No canto; todo es silencio alrededor:
tu ausencia, mordedura y carcoma:
lejanía,
vagas palabras perdiéndose,
ecos de olas que hoy como ayer rompen
mientras desapareces para siempre.*

*(En Trabajos de amor disperso,
Pamplona, Medialuna, 1996).*



175

**López-Mugartza Iriarte,
Juan Karlos**

(Zaragoza, 1961)

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte dut izena, baina lagunek *Juankar* deitzen naute nire lehengusuak lehenengo aldiz halaxe izendatu ninduen egunetik. 1961ean sortu nintzen, Euskal Herritik kanpo, Zaragozan, beraz nik bai esan dezakedala, Sarrionaindiak ez bezala, "Ni ez naiz hemengoa". Dena dela, diasporan jaioa naizen arren, nire haurtzaroa Altsasuko baso eta mendiei loturik dago. Izan ere, Altsasuko azken euskaldun zaharretariko baten semea naiz, Bordako Josefinarena, eta amaren herrian hazia izan nintzen, Zaragozatik mugitu eta Iruñera joan ginen arte, nik lau urte nituelarik. Handik aurrera, Nafarroako hiriburuan hezia izan nintzen. Eskolapioen ikastetxean ikasi nuen

eta bertan euskaldundu eta alfabetatu nintzen Periko Alonso irakaslearekin, Errealeko jokalaria ospetsuari izena eman zion anaia bera.

Gerora, Euskal Herriko Unibertsitatera joan nintzen, Gasteizko kanpusera, eta bertan Euskal Filologian lizentzia eta doktoretza lortu nuen, “Erronkari eta Ansoko toponimiaz” izeneko tesiaz. Urte batzuetan Gasteizko AEK-n (Zaramaga Auzoan) eta Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakunde bereko *Milagrosa Gau Eskolan* euskara irakasle izan nintzen eta irakasle tutore bezala, Gasteizko Toki Eder ikastolan eta Txantreako Irubide Institutuan, harik eta Nafarroako Magisteritza Eskolan irakasle postua lortu nuen arte. Egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Irakasle Titularra naiz, Giza eta Giza Zientzien Fakultateko Dekanordea eta Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko kidea, Euskal Filologiaren eta Didaktikaren arloan. Bestalde, pozten nau esateak Unibertsitate honetako Hizkuntza Normalizazioaren Lehenengo Batzordeko eleduna izan nintzela Errektoreak hala izendatua. Ohore handia izan zen niretzat.

Bestalde, Toponimia, Oikonimia eta Onomastikaren ikerketari loturik, Nafarroako Toponimia Batzordearen sorreran parte hartu nuen (1990) eta Iruñeko Toponimia Batzordeko eleduna izan nintzen (1998). Oikonimia gaietan aholkularia izan naiz Aezkoan, eta oraindik ere banaiz Zaraitzun, Erronkarin eta Artzibarren. Bestalde, Andorrako “Lidia Armengol Vila” Toponimia Ikerketa Taldeko kidea naiz, bai eta Euskal Onomastika Elkartearen zuzendaritzako eleduna eta aldizkariaren zuzendaria ere.

Literaturaren arloan, irakasle bezala, *Euskal Literatura* ikasgaiaren arduraduna naiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta, orobat, Bigarren Hezkuntzako Euskarako Masterrean euskal literaturaren irakaspenaren arduraduna, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktikaren Saileko Literatura Batzordeko Lehenengo Titularra bainaiz.

Sortzaile bezala, Euskaltzaindiaren *Felipe Arrese-Beitia* Poesia Sariaren jabe naiz *Garraren eta Karroiaren Margoak* izeneko poesia bildumarekin. Hala, Iruñeko Aurrezki Kutzaren *Xalbador* Poesia Sariaren Ohorezko Aipamena eman zidaten. Bestalde, *39 idazle nafar* izenburuko antologian “Korrika egiteagatik Karrikari sortu zitzaion kalte izugarria” ipuin laburra argitaratu didate, *Aizu!* Aldizkarian ikasle garaian argitaratu nuen beste zaharrago baten moldaketa dena.

Senpereko *Hatsaren Poesia* eta Baionako *Maiatz* elkarteetako kidea naiz. Sakanako *Guaixe!* aldizkariaren kolaboratzailea eta *Euskaldunon Egunkariarena* eta *Euskalerrria Irratiarena* ere izan naiz. Tafallako *Luces y Sombras* poesia aldizkariak egin zuen Nafar Olerkarien Antologian eta *Litoral* argitaletxearen Euskal Olerkigintzaren Antologian jasoak izan dira nire olerkiak.

Iruñeko Udalak, Euskal Idazleen Elkarteak, Hatsaren Poesiak eta Maiatz

Elkarteak antolatutako hainbat errezaletan parte hartu izan dut, hala nola “MAUTen Poemak” (Iruñea 1997), “Gabriel Arestiri Omenaldia” (1999 Bilbo), “Poesia Orduak” (2007 Donostia), “Maite ditugun olerkariak” (2008 Senpere), “Iruñea-Baiona *Maiatz* aldizkariaren jardunaldi literarioan” (2016 Iruñea) eta “Kaligramak” (2017 Miarritze).

Euskal Idazleen Elkarteko kidea naiz eta bi garai ezberdinetan Zuzendaritza Taldekoa: Andolin Eguzkitzarekin hasiera batean (Nafarroako ordezkari lanean), eta Ander Iturriotzekin azken aldian (EIEko Idazkari bezala).

Aurten, Iruñeko Udalak eta Nafar Ateneoak ematen duten “Iruña Hiria” poesia saria irabazi dut “Bihotz hauskorak osatu eta Portu handira iritsi dira” bildumarekin. Orobat, aurten ere, Baionako *Maiatz* argialetxeak *Arima Animalia* poesia bilduma argitara emango du Iruñean.

Nire inspirazio iturri nabarmenenak, erdaraz, Bertolt Brecht, Samuel Beckett, Antonin Artaud, Guillaume Apollinaire, César Vallejo, Juan Goytisolo eta, oro har, Paco Ibañezek Olympian musikatu zituen guztiak, Gongora eta Quevedo ere barne; euskaraz, berriz, Joan Mari Irigoien, Lizardi... eta, jakina, Sarrionaindia eta Etiopiako Atxaga, Auxtin Zamora eta Lucien Etxezaharreta... Klasikoen artean, eta forma eta hiztegia lantzeko unean, Etxepare, Axular, Joan de Beriain, Joakin Lizarraga Elkanokoa eta Bibliaren euskarazko itzulpen guztiak ditut atsegin. Oso barrokoa naiz, bai eta lirikaren alde gogotsu borrokatua ere, baldin eta bidegabekeriaren aurka borrokatzeko tresna baliagarria bada.

177

*Leizarragaren Testament Berrian bezala
hango edertasun guztiak erakutsi zizkidan
mila pinakleren tenpluak
bobeda handien meskitak
ametsen lorategiak
betiereko
gaztetasuna
irasagar
gazta
ardo
eta
intxaurrak
urrezko kalizan
eta gailur hartatik
ibilbide zirkularrez beteriko hiria*

Iruñea zela antzeman nuen, eta lanpara baten barnean atziturik zeukan aztia

